



F A D I P

FEDERACIÓN DE ASOCIACIONES
DE ILUSTRADORES PROFESIONALES

Ilustrazio grafiko sektorearen egoera ekonomikoa Espainian

Ilustrazioak sektore kulturean duen parte hartze ekonomikoari buruzko azterketa

Garatutako lan - metodoa

Txosten hau gauzatzeko lan guztia FADIP etik antolatu da eskualde anitzen parte hartze prozesu bati esker, non elkarte kide guztiek parte hartu dute: AGPI, APIC, APIE-EIEP, APIM eta APIV, hala nola federazioaren beraren koordinazio eta zuzendaritza.

ITURRIAK	TEKNIKAK
<p>—INE, AEAT, Kultur Ministerioa eta kultura sektorearen entitate errepresentagarriak eraztutako estatistika ekonomiko eta fiskalak, FADIPek garatutako duen ikerketa dela medio.</p> <p>-Galdeketa eta elkarrizketa pertsonalak ilustrazioaren profesionalen eta antzerako sektore profesionalen.</p>	<p>-Irudigileen lurraldeko Focus Groupak.</p> <p>-Eztabaida- foroa Espainiako irudigile ospetsuen artean.</p> <p>-Elkarrizketa selektiboak irudigile ospetsuekin, arte zuzendariekin, profesional nabarmenekin eta erreferentzi konparatibo modura erabilitako sektore kulturen ordezkariekin: publizitatea, prentsa eta liburuak (ilustratutako liburuak editatzen dituzten argitaletxeak).</p>

• **Unibertsoa eta lagina:** Txosten honetan erabilitako laginen definizioan beharrezkoa da bereiztea hauen erabilpena ikerketa kuantitatiboan eta ikerketa kualitatiboan bai informazioan eta bai lortutako datuetan.

• **Ikerketa kuantitatiboa:** gehienbat FADIPekin harremanandutako pertsonen erraztu duten informazioarekin egina.

Lurralde banaketa eta parte hartzea laginan

	Unibertsoa	Lagina	%
Asociación Galega de Profesionais da Ilustración – AGPI	71	51	71,83
Associació Professional d'Il·lustradors de Catalunya – APIC	402	63	15,67
Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala - APIE- EIEP	34	13	38,24
Asociación Profesional de Ilustradores de Madrid – APIM	169	99	58,58
Associació Professional d'Il·lustradors de Valencia – APIV	195	72	36,92
	871	298	34,21

Guztira **871 galdeketa** bidali dira Espainian dauden Irudigile Profesionalen Elkarten artean banatuta (Katalunia, Euskadi, Galizia, Madril eta Valentzia); hauek, eta FADIPen elkartekideen lurraldeetan aukeraketa egin ondoren, **298ko** lagina eratu da eremu geografiko ezberdinetatik galdeketa bete duten profesionalen artean, sexu, adin, baldintza ekonomiko, etab. bezalako aldaerak kanpoan utziz.

Galdeketak FADIPen barne dauden Elkarteetatik bidali ziren posta elektronikoaren bidez, 2005eko bigarren seihilabetekoan zehar; elkarte bakoitza arduratu egin zen haien lagin errepresentagarriaren galdeketak koordinatzeaz bidalketan zein harreraren.

Behin galdeketa guztiak bilduta, informazio guztia tabulatzeari ekin zitzaion formato komun batean, datuen iragazpena eta hauen interpretazioa ahalbidetuz.

Emaitzarik adierazgarrienak txosten honetan biltzen dira bere errepresentazio grafikoaren bitartez.

• **Ikerketa kualitatiboa:** funtsean ospe eta ibilbide bikaina duten ilustrazioaren profesionalekin egindako **28 elkarrizketekin** burutua, baita sektore interesgarrien ordezkariekin ere. Aipatutako elkarrizketak kontu handiz aukeratu ziren FADIPen interesari erantzuteko lanaren lehenengo fase honetan.

	Personas entrevistadas	Sectores
Asociación Galega de Profesionais da Ilustración AGPI	<ul style="list-style-type: none"> • Fran Jaraba • Xan López Domínguez • Xosé Cobas • Miguelanxo Prado 	Ilustrazioa
Associació Professional d'Il·lustradors de Catalunya APIC	<ul style="list-style-type: none"> • Raquel Pelta Resano • Josep Rosell Prado • Isabel Martí • Enric Jardí • Gabriela Rubio 	Diseinuaren historia Ilustrazioa Argitaratzea
Euskal Irudigileen Elkarte Profesionala APIE- EIEP	<ul style="list-style-type: none"> • Elena Odriozola • Jokin Michelena • Mikel Urmeneta • Mikel Valverde 	Ilustrazioa
Asociación Profesional de Ilustradores de Madrid APIM	<ul style="list-style-type: none"> • Javier Olivares • Javier Zabala • Carlos Fernández del Castillo • Sally Cutting • Pablo Amargo • Manolo Hidalgo 	Ilustrazioa
Associació Professional d'Il·lustradors de Valencia APIV	<ul style="list-style-type: none"> • Josep Gregori • Rosa Serrano • Manel Romero 	Argitaratzea
Federación de Asociaciones de Ilustradores Profesionales FADIP	<ul style="list-style-type: none"> • Samuel Alonso • María Castillo • Ulises Culebro • Reina Duarte • Gustavo Puerta • Antonio Ventura 	Argitaratzea Prentsa Publizitatea


28 elkarrizketa

Hurbilketa bat gremioaren egoerara

Ilustrazio grafikoaren sektore profesionala Espainian

Lortutako datuen lehendabiziko irakurketa batek, honakoa egiaztatzen bultzatuko gaitu: emakumezko eta gizonezko profesionalen arteko aldea gora egin duela 2002. urteko Ilustrazioaren Liburu Zuriaren gauzaketari dagokionez; biztanleriaren banaketa proportzionalaren mugan kokatuz emakumezkoen eta gizonezkoen parte hartze orekatu baterako. Txosten honetan, erreferentzi modura erabiltako lagina gizonen %63ean eta emakumeen %37ean banatzen da.

Irudigileen laginaren banaketa




Mediterranean zonaldea (Katalunia eta Valentzia) profesional kopuru gehiena biltzen jarraitzen du, dena den, berpizketa garrantzitsua izan da Madrilen, gremio profesionalaren erakurpen foku bezala jardutera bueltatzen dena eta baita beste eskualdeen agerpena eta protagonismoa ere, esate baterako Galizia, elkartasun profesionalaren apeu bezala finkatzen ari delarik.

Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko banaketak antzerako eskema erakusten digu, gizonezkoen dagokionez ordena eta proportzioa aldatzen diren arren. Emakumezkoen kontzentrazio handiena Madrilen ematen da, Katalunia jarraituta; Valentzia bere parte hartze profesionala birmoldatzen joan da, parte hartze eta ordezkartza maila orekatuetara iritsiz; kontrakoa da banaketa Galizian, emakumeen eta gizonen arteko alde handiagoa erakusten duena %12 arekin kolektibo profesionalan.

Lagintzat balio izan duen talde profesionala, sektorean formakuntza berezitua izateagatik nabarmentzen da, gehiengoa unibertsitatean (Arte Ederrak) eta baita prestakuntza artistiko espezializatuan maila on bat izateagatik ere (funtsean Arte egokituak eta Lanbide artistikoak).

Ezagutza eta ezarpen teknologiko berezitua



Orokorrean, formakuntza eta espezializazio perfilak irudigile emakumezkoetan eta gizonezkoetan oso antzekoak dira, nahiz eta azpimarratzekoa izan emakume irudigileen joera espezializazio-

4 - Ilustrazio Grafikoa Espanian

ra antzeko zeozer islatzen da ezagupen eta ezarpen teknologiko berezitan, zeinean “emakumezkoen teknofobia”ren susmoak existitzen ez diren arren, jarrera desberdinak antzematen dira: softwareari buruzko ezagupen eta ezarpen aniztasun gehiago gizonezkoen kasuan, eta emakumezkoen kontzentrazio handiagoa ilustraziorako, diseinurako eta web orrialdeen sormenerako teknologia berezituaren aplikazioan.


Esperientzia profesionalari dagokionez, esan beharrekoa da besterik ez talde osoaren komunekoa ezaugarria dela, gizonezkoek ibilbide profesional luzeagoak egiten dituzten arren, gure herrialdean azken 30 urteetan izan den gizarte eboluzioa kontutan izanda.

Esperientzia elkarkor eta profesionaletik jasotako datuak, lanbide hau ahalmen autodidakta behar duela esaten dutenen perfila indartzen du. Ahalmen hori garatuz doa ikasketa eta esperimertzatuzio prozesu jarraikor baten bidez, baita lanbide honetan erabakigarria den birziklatze profesionalaren bidez ere.


Ilustrazioaren jardura profesionala Espainian

Txosten honetan jasotako datuen lehenengo irakurketa batek argitu egiten du orain arte lanbidearen barruan “ageriko sekretu” bat zena: jardun egiten den baldintzak erakusten dute ez dagoela kobertura nahikoa gremio profesionalak, orokorrean, lanbideari ekin diezaion jardura ekonomiko bezala. Apenas euren burua Irudigiletzat duten %40 batek profesional moduan dihardute eta horretaz bizi dira.

Irudigilearen lanbidean eksklusiboki jarduten dute (elkarteak)



Nola burutzen duten beraien jardura profesionala irudigileek (elkarteak)




Datuak azaltzen dira errealitate nabarmen baten aurrean, gremio profesional hau modu sendoa-go batean finkatuta dagoen eskualdeetan ere, lanbide honetan eskusiboki mantentzea oso zaila delako.

Bakarrik ilustrazioaren profesionalizat dihardutenak, gehien bat autonomo bezala egiten dute. Horrek tenperamentu berezi bat ematen dio sektore honi, lan prozesuaren izaera indibidualista indartzen duena, hala nola "isolamenduaren" eta babes ezaren sentzazioa profesionalak izan behar dituzten eskubideen bermearen aurrean.


Agerian gero eta aniztasun gehiago dagoen arren, esan beharra dago ilustrazio grafikoak lantzen dituen arloen artean argitaletxe sektorea dela sormen bisual gehien erabiltzen duena, batez ere haur-erentzako eta gazteentzako liburuekin eta testu liburuekin.

Ez da harritzekoa beraz, FADIPetik jarritako ahalegina gremio editorialarekin akordioak ezartze-arren, hau guztia egilezko sormen grafikoak ordezkatzen dutenen baldintza profesionalak hobetzeko asmoz. Batez ere, kontutan izanda irudigileen bezero gehienak enpresa pribatuak direla.

Arlo profesionalak zeinetan ilustrazio lan gehien burutzen diren




Irudigile profesionalen ohizko bezeroak (elkartek)



Ilustrazio grafikoaren merkaturaketa Spainian

Sormen bisualeko jarduera honetan profesionalki dihardutenek gehienbat argialetxeekin, publizitate enpresekin eta prentsarekin egiten dute lan, maiztasun eta intentsitate orden berdinean.


Zein sektorerako lan egiten duten irudegileek sarrienik (elkarteak)



LTaiupen ohikoena lan profesionalaren agindua dokumentatzeko aurrekontuaren baieztapena da (%54'7), beti ere dagozkion baldintzak, prezioak eta epeak zehaztuz; hala ere, idatzizko kontratu ereduaren erabilpena ez ohizkoa izaten jarraitzen du, soilik harreman mota hauen %22'5 ak gauzatzaren dira era honetan.

Kontutan izanda FADIPetik lan gogorra egin zela Argialetxeen Gremioaren Federakuntzarekin

Ilustrazio agindu profesional bat formaltzeko tresnak (elkarteak)




komuneko kontratu eredia negoziatzeko. Negozialetaren asmoa argialetxeen eta irudigileen arteko harreman komertzialak ofizialtzea zen, Jabego Intelektualaren Legean ezarritakoa babetzuz. Lagin honetan jasotako datuen balorazioaren ondoren, egiaztatzen da kontratatzailearen interes falta aipatutako kontratu eredia erabiltzen.

Elkarrizketatutako laginaren %52 ak, aitortzen du arazoak izan dituela harreman profesionalen idatzizko kontratu bat erabili nahi izateagatik lanaren agindua formalitzeko orduan.

Paradoxikoa da, eta aldi berean talde profesional honen babesgabe egoera islatzen du ondorengo gertaera: batetik Jabego Intelektualaren Legeak aurreikusten dituen baliabideak aplikatzeko asmoak eta bestetik lan- profesional harremanen antolaketa hobetuz indartze ofizialeko tresnak erabiliz. Honek irudigileen bezeroen banakako harremanetan eragina duen penalizazio sistema sortarazi dezake, lehenengoak egoera zaurgarriagoan kokatuz.


Egiletasun eskubideen onarpena konpondu beharreko eragozpena da oraindik ere.

Idatzizko kontratuaren bidez ilustrazio agindua taitzeko planteamendutik eratorritako egoerak eta arazoak (elkarteak)




Irudigileen egoera ekonomikoa

Irudigileen urteroko batzbesteko diru sarrerak - eurotan - (elkarteak)



Irudigileen urteroko batazbesteko gastuak -eurotan- (elkarteak)




Irudigile profesional gehien kontratatzen dituen sektorea editoriala bada ere, datuak egiaztatzen dute diru sarrera profesionalen zatirik handiena ez dela azken honetatik etortzen; publizitatearen sektoreak ilustrazio profesionalaren elikadura iturri nagusia da, argitaletxearen eta prentsaren sektoreak jarraituta.

Ageriko aldea bezero nagusizat jotzen duen sektorearen eta diru sarrera gehien ematen dituen sektorearen artean, irudigileen gastuen- diru sarreraren grafikoek islatzen duten egoera ekonomikoa azaltzera laguntzen dute bide batez. Are gehiago kontutan izanik arlo profesional bakar batetik diru sarrerak jasotzen dituzten profesionalen artean, gehienok argitaletxeetatik egiten dutela. Hizkuntza ofiziala bera dagoen eremu geografikoetako profesional ugarien kasuaz ari gara, non liburuaren merkaturia funtzionamenduan eta praktikan zabaldu egiten da, eta baita irudigile emakumezkoen artean, haurrentzako eta gazteentzako liburuen inguruan zentratuta.

Ilustrazioaren profesionalak aitortutako gastu eta sarreraren inguruan jasotako datuak agerian uzten dute nabarmenki gremio honen zati handi bati dagokion egoera ekonomikoa.


Irudigileen diru sarrera profesionalen jatorri nagusia (elkarteak)




Laginan parte hartu duten profesionalen % 48a urteroko 12000 euro baino gutxiago jasotzen dute beraien jarduera profesionalaren truke; egoera honetan aurkitzen dira irudigile emakumezkoen % 50 eta gizonezkoen % 45'7.

Nagusiki gizarte segurantzaren autonomoentzako erregimen berezian jarduera profesionala burutzeagatik eratorritako diru sarrerei jarduera profesionala mantentzeko gutxieneko gastuak (gizarte segurantzako kuota, hornigaiak eta suntsigarriak) kentzen badiogu, batzbesteko sari likidoa zeinnek in ilustrazioaren profesionalen % 48a bizirauten duen hileroko 500 euro azpitik dago.

Irudigileen diru sarrera profesionala jatorri nagusia (jeneroa)



Irudigile jarduera profesionalaren funtzionamendurako gastuen barne sartzen diren kontzeptuak




Egoera honetan ez da harrizkoa ikerketa ekonomikoaren hurbilketa honen lagina osatu duten profesionalen %59 ak aitortzen duela urteroko, beraien jarduera profesionalaren truke irabazten dutenarekin apenas ailegatzen zaiela eguneroko bizitzaren oinarritzko gastuak estaltzeko (elikadura) ezta beraien jarduerarekin jarraitzeko gutxieneko gastu profesionalak (gizarte segurantza eta honigai energetiko eta informatikoak) ordaintzeko ere ez.

Bestaldetik, laginaren %17 batentzako jasotako diru sarrerekin ez daukate ezta gizarte segurantzaren gastuak ordaintzeko ere. Horrek bideraezin bihurtzen du jarraikortasun bat gizarte kotizazioan eta langile autonomoen erregimenean sarrera - irteera efektua eragiten du, lan aginduak izatearen edo ez izatearen arabera. Egoera hobek eragiten die gehienbat profesional bezala hasten direnen zati garrantzitsu bati, irudigile berrietan eskusiboa ez den arren.


Laginaren %20 ak bere jardueran mantentzea lortzen du, eguneroko bizitzaren gastuak estaliz eta baita aurreztuz ere; portzentai txikiago hau profesional ospetsuei dagokio, gizonezkoak, bide profesional sendoarekin eta haien sinadurak balore gehigarria ematen diotelarik haien ilustrazioak dararmaten produktuei.

Oro har, Espainia mailan ilustrazio grafikoaren gremio profesionalak aurkezten duen gabezia ahalmen ekonomikoan, lanaren prezioaren finkapenean datza. Prezioen ezarpena lotura gehiago gordetzen du beharrezko denborarekin eta jarduera profesionalarekin jarraitzearekin, bere lanak dakarren balore erantsiaren finkapenearekin baino.


Urteroko diru sarrerak irudigile bezala ahalmena ematen die (elkarteak)



Urteroko diru sarrerak irudigile bezala ahalmena ematen die (elkarteak)




Faktore eragile nagusiak Ilustrazio lanaren prezioaren ezarpenean (elkarteak)



Aukeratutako laginaren barneko irudigile profesionalen zati handi batek, aitortzen du ez duela bere esku gremioak erabiltzen dituen prezio tarifak erreferentzia praktikoa bezala izateko lanen aurrekontuak aurkezterako orduan. Alde batetik, horrek adierazten du sektore ez erregulatuaren aurrean gaudela, zeinetan funtzionamendu eta garapen profesionala zerikusi handiagoa dauka banakakotasunarekin eta ospearekin, korporatibismo edo talde identitatearekin baino; baina bestaldetik erakusten du FADIPek eratutako Ilustrazioaren Liburu Zuriaren barneko tarifak - zenbateko minimoa ezartzeko erreferentzia bezala - nahiko ezezagunak direla eta are gutxiago erabiliak. Arrazoi nagusiak izan daitezke ezjakintasuna edo aintzakotzat ez edukitzea, lantzen den lurralde textuinguruan eta arlo profesionalean eguneratua ez egoteagatik.


Ilustrazio Grafikoaren Liburu Zuriko Tarifa Minimoen erabilpena (elkarteak)



Egoera ekonomikoaren pertzepzioa eta balorazioa

Ilustrazio gremio profesionalari hurbilketa deritzon egoera konplexu honek behar duen arreta osoarekin baloratuz, jasotako elkarrizketak eta galdetegiak agerian uzten dute egoera barregarria dela, eta gainera, azken urteotan bizi izandako joera eta bilakaera errealitate kezagarria erakusten dutela, lanbide honen adeitasuna hondatuz eta jarduteko baldintzak duin bihurtzeko prozesua oztopatuz.

Ilustrazioa lanbidearen prezio eta balorearen arteko erlazioa (elkarteak)




Argitaratze - sektorean, ikerketa zaila bihurtzen da hedapen datu publiko berezien faltagatik, eta baita argitaletxeen ikuspegi komertzialaren aldaketagatik. Ikuspegi berri honen arabera, liburu bakoitzaren promozioa eta salmenta garrantzia galtzen du merkatuan leku gehiago okupatzearen aurrean. Politika honekin tituluen gainproduktzio fenomenoak sortzen da (zenbaki ofizialen arabera, ia urteko 70000) eta gainera sormen lanaren balioaren galera gertatzen da. Argitaratze -sektorearen kaudimenaren inguruan egin litekeen hausnarketak saihestuz, badaude bi datu seguruak: irudigilearen parte hartze erlatibo liburuak sortutako balioan behera egin du royalt orokorren portzentaia berri batera (literatur autoreta + ilustrazio autoreta) %10etik %6ra eta %4ra hainbat kasutan. Uste bezala, “a tanto alzado” galduta formulako ordainsariak hedatzen jarraitu dira - ezkutuan talde lana baldin bada edo ez-, proportzionaltasunari uko egin ez. Hau guztia liburu sektorearen barne-merkataritzako datuak 2003. urterako publikoak egiten diren bitartean. Bertan %2,1eko hazkuntza adierazten da inflazioaren gaitetik, ordainsarrietan ilustrazio grafikoaren erreproduktzioagatik antzeko jokabidea egon ez den bitartean.

Beste datu bereizgarria dugu zenbatekoen murriztapen nabarmena royaltyen inguruko aurre-erapenetan, suposatzen duena azken finean egileari edizioaren finantzazioaren zati bat ematea.

Pentsaren sektorean OJDERen datuak adierazten dute azkenengo 10 urteetan, oro har gora egin duela informazio okorreko egunkarien hedapena (ñabardurkin eta salbuespenekin denboraldietan eta argitalpen konkretuetan), salneurri publikoa %200 batean gora egin duen bitartean. AEDEK (Asociación de Editores de Diarios Españoles) erraztutako datuen arabera, ale tirada gehiagoko 8 egunkarien artean, 6k zabalkundea handitu dute 2001 eta 2002 bitartean. Iturri berdinen arabera, sektorearen multzo osoa 169.000.000 euroko mozkin izan zuen epe berberetan. Dena den, inork ez du lankidetzaren tarifak igo izan (aldi bakoitzeko erreproduktzio eskubideak), kasurik hoberean balio nominal berdina mantendu dute eta uste da okorrean %20aren eta %40aren artean jeitsi direla. **Bestaldetik, batera argitaratutako argitalpenetan, bigarren aldiz erreproduktutako irudien dohaineko lagapenaren praktika agertzen da.**

Irudigileen pertzepzioa azken 5 urteetan lan egiten den prezioen aldakuntzaren inguruan (elkarteak)




Publizitatearen eta diseinuaren sektoreetan egoeren aniztasuna zaildu egiten du sintesia. Dena den, adibide gisa esan dezakegu, batzbesteko tarifak horma- irudien eta txostenen ilustrazioetan behera egin dutela % 30 eta % 50 artean aipatutako epean. Beherapena are handiagoa da sektore hauetan egile eskubideen kultura oso ezegonkorra delako eta royaltyen edo beste modu proportzionalen ordainketak ezartzen ez zaizkielako irudigileei.

Laginan parte hartu duten profesionalen % 55aren ikuspuntutik prezioen beherapena azken 5 urteetan begi bistakoa da. Horrek berekin dakar eskuratze- botere errearen galera, profesionalki ilustrazio grafikoan dihardutenen gehiengo baten kasuan.

Sektore honetan esperientzia gehiago eta ibilbide profesional luzeagoa dutenek baldintza hobegotan aurkitzen dira ikerketa konparatiboa burutzeko Espainiako eta beste herrialdeetako ilustrazio grafikoari eragiten dioten egoeren artean. Eta erakustea nola Frantzia edo Estatu Batuetako hobekuntza itxurazko errealitatean, profesionalen eskaera handiagoak ilustrazioaren baldintzen eta ordainketaren suspertzea ekarri dezakeela. Baina egia esan, merkatu internazionalak, Espainiakoak legez profesionalen zati garrantzitsua kanporatzen du jardueran mantentzeko adina diru ez irabazteagatik edo lanaren balio sinbolikoa eta ekonomikoa arbuatzen duten profesionalen eskaintza ugaritzen delako, bide okerra jarraituz.

Irudigileek haien egoera ekonomikoa aintzakotzat hartzen dute beraien gremio profesionalaren arabera (elkarteak)



Jabetza intelektualetik eratorritako eskubideen babeza eta bermea beharrezkoa dugu. Eskubide horiek talde ekintza koordinatua eta eztabaida serioa behar dute, gainditu beharreko minimoen erreferentzia bezala jokatu duten komuneko tarifak ezartzeko.

Akats bat izango lirake ekonomia egoera ezegonkor hau merkatua ez onartzearen faktoreari leporatzea.

Ilustrazioa produktu amaituak kontsumitzen dituztenei gustatzen zaie, eta horregatik hauei balioa ematen die; baina irudigilea ez da orokorrean edukiaren zati sortzailatzat ezagutzen, baizik eta gehienetan kontu estetikoaren hornitzailea bailitz bezala; burutzen duen lanaren eta lanbidearen balorazio eta aintzatespen gabezi hauek azaldu egiten dute era berean sektore honek dituen zailtasunak talde bezala prezioen balioa handitzeko.

Elkarrizketa kualitatiboen emaitzak

Ilustrazio grafikoaren sektoreak Espainian duen egoera ekonomikoari buruzko Txostena - FADIPek 2005 urtean zehar egin- osatzeko 28 elkarrizketa egin zitzairen ospe eta ibilbide bikaina duten ilustrazioaren profesionaleri, hala nola hiru sektore interesgarrien ordezkari (ikus 2.orrialdeko laukia).

Oro har, egindako elkarrizketak eskema komuna jarraitzen dute gai zentraleri dagokionez.

Elkarrizketei edukina ematen dieten ideia zentralak:

ILUSTRAZIOAREN PRESENTZIA GIZARTEAN

Iritzia eman nahi da ilustrazioak hiritarren kontzientzian dagoelaren pertzepzioari buruz.

Ilustrazioaren **ERABILPENA** (edo ber erabilpena) mezuak BIDALTZEKO edo indartzeko euskarri bezala. Ba al da ilustrazioa osagarri apaingarria edo komunikazio bisualerako tresna?

ILUSTRAZIOAREN BALIO EKONOMIKOA

Hau da ikerketa ekonomikoaren gai erabakigarria. Ilustrazioa zeozer merke bezala antzematen da? Balio/prezio aldaketaren pertzepzioa, nola aldatuz joan den.

Hau da ikerketa ekonomikoaren gai erabakigarria. Ilustrazioa zeozer merke bezala antzematen da? Balio/prezio aldaketaren pertzepzioa, nola aldatuz joan den.

ILUSTRAZIOAK GIZARTEAN DUEN PRESENTZIA **ari buruz**

Ilustrazioa gizatean agertzen da eta bere erabilpena gora egin du, bai bere balorapen artistikoa-gatik eta bai bere aplikazio anitzengatik hainbat soportean, egunero inguratzen gaituzten arropan, ontziterian, elementu apaingarrietan, etabarretan esate baterako.

Jendeak irudiei ematen dien balioa, irudigileak bere obra zenbat baloratzen duen araberakoa da

Ilustrazioa gaur egun bide eraginkorra da komunikazio mezu indartsuak garatzeko, horregatik dauka presentzia handia gizartean, eragin esparrua eta toki guztietan kontsumitzen da. Orokorrean bilakaera bat egon da ilustrazio grafikoaren erabileran eta eginkizunean. Ikuspuntu pertsonaletik mezu baten igorpena errazten du, nahiz eta irudi hauek irakurtzeko maila kultural eskasak kontsumitzaile gehienei mezuak alde egitea eragin dezakeen, edo irudigileak kontsumo errezeko irudiak sortzearen beharra, beti ere argitaletxeen salmentak eta argitaratzaileak markatuta.

Lanbide honetan dihardutenek honela hautematen dira: Sortzaileak, artista bisualak eta batzutan zertxobait mertzenarioak ere.

Ilustrazioa kontsumo gizartearen zerbitzura dago, baina ez dago behar bezala baloratuta

ILUSTRAZIOAREN BALIO EKONOMIKO **ari buruz**

Adostasun zabala dago irudiztatzearen lana ez dagoela behar bezala ordaindua baieztatzeko orduan, ilustraziaren prezioak oso baxuak direla, erabat izoztutak daudela eta honen truke ordaintzen dutenek ilustrazioa zeozer merke bezala ikusten dutela.

Ilustrazioaren balio ekonomiko ordaindua ez dator bat zerbitzuarekin eta sortzen dituen mozkinekin, industria mailan aldiz, mozkinak ikaragarri altuak eta promozio, publizitate eta abarren oihartzuna kalkula ezinak diren bitartean.

Duela zenbait urtetik prezioak izoztutak daude, eta kasu batzutan jeitsiz joan dira gainera.

Tarifa egokiak profesional bakoitza balioarazi behar duen zerbait da. Frogatu al izan denez des-

oreka dago erabilpen/ ustiapen eta egilearen ordainsari ekonomikoaren artean, orekatu edo larriagoatu daitekeena ilustrazioaren hedapen baldintzen arabera, egiletasun eskubideak bermatzen baldin badira.

Ustiapen ez onartua edo ez kontrolatua salagarria izan beharko lirateke.
Teknologia berriek ez dute sormen bisual baten erabilpenaren kontrola errazten.
Lan bakoitzaren balio ekonomikoa, azkenik, irudigile bakoitzak lan horren truke kobratu dezakeenaren arabera da.
Ilustrazioari ematen zaion balio ekonomikoa merkatuaren balioa da.

Editorialaren sektorean egiaztatzen da prezioak ez direla igo eta ondorioz baxu mantentzen direla, eta arrazoiak honako hauek dira: merkatu kulturalaren baremoak, sormena lantzearen prozesua errazten dute teknologia berriek, gain produkzio editoriala, ...

Publizitatean gehikuntza dago, baina ez da nahikoa, ezta balio profesionalari proportzionala ere ez. Eta prentsan ordainsari jarraiak mantentzen dira (elkarlanari dagokionez) baina dirudienez proiektu berri bat ailegatzen den bakoitzean aurrekontu berriz planteatzen dela.

Elkarrizketetan jasotako zenbait BEREZITASUN interesgarri

Elkarrizketa kualitatibo hauetan parte hartu duten irudigileen artean, gehienon iritzi komuneko irizpide profesionalen beharra dago - batez ere jarduera profesionalaren hasieran - eta baita elkarte profesionalen eta eskubideak kudeatzen dituzten erakundeen papera indartzeko beharra, lanbide honen lan- baldintza orokorrak hobetu ditzaketen tresnak bezala. Honekin azken batean planteatzen ari dena zera da, hobekuntzaren irtenbidea, neurri batean behintzat, gure elkarte- lanaren onarpen handiagoa, EGILE kontzeptuaren erregularizazio legala eta indarrean dagoen legea ezartzea izango litzateke.

Lanbide hau orokorrean modu independente eta liberalean garatzen da, ondorioz norbera bere proiektua eta baldintzak eraiki behar ditu eta bere lan profesionala balioarazi behar du.

Argitaratze- sektorearen editoreen artean, adostasuna egon da ondorengo alorrei buruz iritziak eta balorazioak ezartzeko orduan:

Ilustrazio espainiarraren kalitate maila:

Kalitate estetikoari dagokionez maila oso ona da eta bilakaera prozesu argian aurkitzen da. Sormen susperraldia antzematen da, teknikaren erabilpena narratiban edo "jenio"an nagusitzen den arren, salbuespenak salbuespen.

Badira iradokizun grafiko onak.

Presentzia gizartean:

Baliogabekoa, ezagupen eta hezkuntza faltagatik gustu orokorrean. Aisialdi kulturala ez da ulertzen, eta gainera, mezu hutsten garaietan bizi gara eta inork ez daki estetikaren nondik norakoak.

Ilustrazioa mezuak igortzeko eta indartzeko euskarri bezala:

Soilik aurrentzakoa. Orokorrean ilustrazioa elementu apaingarri gisa ulertzen da: "polita da" baloraziorik errepikatuenetarikoa da. Oro har liburuaren prezioa interesgarriagoa da.

Ilustrazioaren balore ekonomikoa:

Produktuaren salmentarako balio altua suposatzen du, baina txarto ordainduta dago, neurritz kanpotik.

Argitaletxe askotan oraindik ez dira royaltyak ordaintzen.

Irudigileen ugaritasunak ez du laguntzen balorazio ekonomikoa haien mesedetan joatea.

Inmigrazioari buruz ez hitz egiteagatik, eskaintza biderkatzen duena (irudigile argentinarren % 80 Madrilen bizi da).

Oso portzentai eskasa dira haien lanetik bizi diren ilustrazioaren profesionalak.

Prezioak gelditutak daude eta duela zenbait urtetik jeitsiz doaz.

Ikerketaren neurria, irismena eta helburuak

FADIPen helburuen artean garrantzi berezia dauka **ilustrazio grafikoak** kulturaren munduari ematen diona sustatzea, duin bihurtzea eta zabaltzea, sormen arlo honetan diharduenaren egiletasun eskubideen defentsarekin batera. Helburu hauen lortpena ilustrazio grafiko sektore profesionalaren baldintzak hobetzeko bidea emango du. Horretarako ezinbestekoa da ilustrazio grafikoaren neurria eta irismena sakontasun gehiagorekin ezagutzea espainiako lurralde ezberdinetan.

Sentsu honetan, FADIPetik 2003. urtean irudigileen egoera profesionala, **Ilustrazio Grafikoaren Liburu Zuriarekin** ikuskatzeko joera zeukan lan norabide berriarekin hasi zen. 2004an zehar alde honetan sakonduz joan da, ilustrazioaren dimentsio ekonomikoaren balorapena eta ebaluaketa zein modutan lortu zitekeen antolatzen. Eta 2005ean zehar lehendabiziko hurbilketa bat burutu zen **Ilustrazioak Espainian duen Parte-hartze Ekonomikoari buruzko Ikerketara**, zeinaren emaitza nagusiak argitalpen honetan laburtzen diren (txosten honen bertsio osoa www.fadip.org - en aurkitu daiteke).

Lehen hurbilketa honekin, FADIPek Espainian sektore profesionalak duen neurria eta dimentsioa erakutsi gura du, bi faktoreen arabera: lurralde banaketa eta lanbidea sexutan banatuta zein eratan gauzatzen den. Arreta berezia jarri zaio lanbidearen negozio bolumenari eta lanbide bera ezaugarritzat dituen baldintzei: bezeria, fakturazioaren bilakaera eta tarifa ekonomikoen bilakaera.

Asmo honekin, lan eta ikerketa deskribatzaile bideari ekin zaio, sektore kulturalaren 3 esparrutan zentratuta: argitaletxea, prentsa eta publizitatea. Bakoitzaren interesa ilustrazio grafikoaren jardura profesionalan daukaten garrantzian datza, eta ondorioz, baita gremioaren egoera ekonomikoan ere.

Txosten honen helburua, lehendabiziko hurbilketa bat burutzea da **Ilustrazioak Espainiaren sektore kulturean duen parte-hartze ekonomikoari** buruzko ikerketara. Asmo honekin, lan prozesu bat garatuz joan da, interes nagusiko puntuak sektore profesionalaren dimentsio ekonomikoaren deskripzioa egituratzeko aukera ematen zutenak izan direlarik, eta era espezifikagoan sektore profesionalaren fakturazioaren ezaugarriak .

Denboraldia 2005. urtea eta bereziki bigarren seihilekoa hartzen du bere barne.



Lan taldea:

Rosa Albero, Manel Cráneo, Neus Escobedo, Daniel Martín, Miguel Ángel Teso

Koordinazioa eta zuzendaritza:

Carmen Castro, Carlos Ortin

Ondorengoen parte hartzearekin:

Fundación Arte y Derecho. Ministerio de Cultura DG de Cooperación Cultural